BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA IBILBIDE LABURRETAN ETA HERRI IBILBIDEETAN ETA, GRDSS2016 MENDIKO IBILBIDEEN SAREAN, HOBETZEKO ZERBITZUAK EGITEKO.

1.- AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen ditu, batetik, Naturgune Babestuetako Mendi Ibilbide Laburren eta Herri Bideen Sarea eta, bestetik, Naturgune Babestuak lotzen dituzten Mendi Ibilbide Luzeen Sarea, GRDSS2016 izenekoa. Sare hauek 2016 urtetik erabilgarri daude.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da aipatutako bidezidorrak hobetzeko zerbitzuak ematea bideen kalitatea eta mendizaleen segurtasuna areagotzeko, bideen homologazioa mantenduz.

3.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

Agirian honako lan hauek sartzen dira:

- Putzuz betetako guneak kentzea.
- Zutoinak, rondinoak eta panelak jartzea.
- Balizamendua.
- Kimaketa baxuak eta sasi garbiketak.
- Errodadura geruza egokitzea.
- Pasabideak eta eskailerak jartzea.
- Haizeak botatako zuhaitzak kentzea.
- Mahaiak, bankuak, erretegiak eta iturriak jartzea.
- Abeltzaintzako itxiturak eta hesiak egitea.
- Hondatutako edo zaharkitutako altzariak kentzea.
- Egindako zerbitzuen geoerreferentziazioa.
- Mendien Erabilera Publikoaren arloko bestelako lanak.

Aipatutako lanak Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Mendiak eta Habitatak

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE MEJORA EN LAS REDES DE SENDEROS DE MONTAÑA GRDSS2016 Y PEQUEÑOS RECORRIDOS/SENDEROS LOCALES.

1.- ANTECEDENTES

La Diputación Foral de Gipuzkoa promueve la Red de Pequeños Recorridos y Senderos Locales de Montaña en los Espacios Naturales Protegidos y la Red de Grandes Recorridos, que unen dichos Espacios Naturales, llamada Red GRDSS2016. Estas Redes se encuentran operativas desde el año 2016.

2.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es la prestación de servicios de mejora en los senderos mencionados que redunden en la calidad de los senderos y en la seguridad de los senderistas, manteniendo así la homologación de dichos senderos.

3.- CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS

Los trabajos que comprende el pliego son los siguientes:

- Eliminación de zonas encharcadas.
- Colocación de postes, rondinos y paneles.
- Balizamiento.
- Podas bajas y desbroces.
- Acondicionamiento de la capa de rodadura.
- Colocación de pasarelas y escaleras.
- Eliminación de árboles abatidos por el viento.
- Colocación de mesas, bancos, asadores y fuentes.
- Realización de cierres ganaderos y vallados.
- Retirada de mobiliario deteriorado u obsoleto.
- Georreferenciación de los servicios prestados.
- Otros trabajos en el ámbito del Uso Público de los Montes.

Los trabajos se realizarán a requerimiento del personal técnico del Servicio de Montes y

Kudeatzeko Zerbitzuko teknikarien eskariz egingo dira eta teknikari horiek kontrolatuko dute lanen sekuentzia. Orokorrean, lanak bidezidorren bideari jarraituz egingo dira eta gune bakoitzeko beharren arabera. Dena den, ohikoa da lan eremua aldatu behar izatea, azkar konpondu behar diren arazoak antzeman direlako.

Gestión de Hábitats del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa y su secuencia será controlada por el personal técnico antes mencionado. Básicamente, los trabajos se efectuarán siguiendo el curso de los senderos y actuando según las necesidades de cada zona. No obstante, suele ser habitual tener que cambiar de ámbito de trabajo por haberse detectado problemas que requieren más rápida solución.

4.- GIZA BALIABIDEAK ETA MATERIALAK.

Deskribatutako lanak egiteko eta dagokion kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa adjudikaziodunak langile-buru bat eta lau langile izango ditu lanaldi osoko dedikazioarekin. Eskuko erremintak izango dituzte (palak, aitzurrak, mailuak, zizelak, edozein motatako giltzak, eta abar), baita bateriako erremintak (bihurkinak, disko-makinak, inguratzeko zerrak, eta abar) eta makineria txikia ere (motozerra, sasi garbitzeko makina, hosto-haizagailua, eskorga, mailu puskatzailea, eta abar). Era berean, ekipo elektrogenoa eta lur orotako ibilgailua izango du, pick up motakoa edo atoia duen lur orotako ibilgailua.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuko teknikariek hornituko dituzte lanak egiteko erabiliko diren materialak (tratatutako egurra, torlojuak, hormigoia, metalezko piezak, etab.) Gipuzkoako Foru Aldundiak Urnietako Arizmendi Mintegian duen biltegitik.

4.- MEDIOS HUMANOS Y MATERIALES

Para la realización de los trabajos descritos y mientras esté en vigor el contrato correspondiente, la empresa adjudicataria deberá disponer de un capataz a tiempo completo y de cuatro operarios a tiempo completo. Dispondrá de herramienta manual (palas, azadas, martillos, cinceles, llaves de todo tipo, etc.), herramienta de batería (atornilladores, amoladoras, sierra de calar, etc.) así como maquinaria pequeña (motosierra, desbrozadora, sopladora, carretilla, martillo rompedor etc.). Así mismo contará con grupo electrógeno y vehículo todoterreno tipo pick up, o todoterreno con remolque.

Los materiales a emplear en los trabajos (madera tratada, tornillería, hormigón, piezas metálicas, etc.) serán suministrados por el personal técnico del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el almacén que la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene en el Vivero Arizmendi, en Urnieta.

5.- LANEN DESKRIBAPENA.

Putzuz betetako guneak kentzea

Bidezidorra etengabe zapaltzearen ondorioz, putzuz betetako guneak sortzen dira eta eskuz lehortu behar dira arekak irekiz. Areken gutxieneko sekzioa 20x20 cm-koa izango da eta alboetako inklinazioa 45º–koa.

Zutoinak, rondinoak eta panelak jartzea

5.- DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A PRESTAR

Eliminación de zonas encharcadas

El continuo pisoteo del sendero provoca la aparición de zonas encharcadas que es necesario sanear manualmente, con apertura de cunetas y sangreras que tendrán una sección mínima de 20x20 cm y con una inclinación de los laterales de 45º.

Colocación de postes, rondinos y paneles informativos

Ondo berdinduta jarriko dira, bidearen paraleloan eta, hormigoiztatzea, gutxienez, 50 cm-ko sakonerarekin egingo da.

Se colocarán bien nivelados, orientados paralelamente a la senda y hormigonados un mínimo de 50 cm. de profundidad.

Balizamendua

Lan guneetan hondatuta edo ezabatuta dauden balizak berriro margotuko dira.

Balizamiento

En las zonas en las que se esté trabajando se repintarán las balizas que se vean deterioradas o borradas.

Kimaketa baxuak eta sasi garbiketak

Kimaketak egitean 2,5 metroko tartea utzi beharko da lurretik adarretaraino. Sasi garbiketa puntualak hortz xehatzailearen bidez egingo dira, bidearen bi ertzetan metro bateko tarteraino.

Podas bajas y desbroces

Las podas se realizarán de manera que ninguna rama quede por debajo de los 2,5 m de la vertical de la senda. Los desbroces puntuales se realizarán con cuchilla trituradora y hasta 1 m de cada lateral del sendero.

Errodadura geruza egokitzea

Atal honetan jarduera hauek sartzen dira:
- Zuloak estaltzea inguruko edo harrobiko materialarekin.
- Harrobiko materiala ekartzea, zabaltzea eta trinkotzea.
- Zirkulazioa oztopatu egiten duten harriak kentzea.

Dena den, ez da onartuko 500 kg baino pisu handiagoa eta 70 cm baino zabalera handiagoa duen makineriarik.

Acondicionamiento de la capa de rodadura

En este apartado se contemplan diferentes tipos de actuaciones:
- Eliminación de socavones con material del entorno o de cantera.
- Aporte, extendido y compactado de material de cantera.
- Eliminación de rocas que entorpezcan el paso.

En todo caso, no se admitirá la presencia de maquinaria de peso superior a 500 Kg. ni una anchura superior a 70 cm.

Pasabideak eta eskailerak jartzea

Bidezidorrak errekastoekin gurutzatzen direnean, teknikariek erabakiko dute tratamendua duen egurrezko pasabidea jartzea komenigarria den ala ez. Kasu hauetan, enpresa adjudikaziodunak Arizmendi mintegitik behar diren materialak garraiatuko ditu eta pasabidea jarriko du, aurretik behar diren estribuak eginez. Kamioi garabi bat behar izanez gero, kostua Gipuzkoako Foru Aldundiaren kargura izango da.

Colocación de pasarelas y escaleras

En los casos en los que los senderos se crucen con regatas, el personal técnico decidirá sobre la conveniencia de colocar pasarelas de madera tratada. En estos casos la empresa adjudicataria transportará desde el Vivero Arizmendi los materiales necesarios y procederá a la colocación de la pasarela previa realización de los estribos necesarios. Si fuera necesaria la actuación de un camión grúa el coste lo asumiría la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Eskaileren kasuan eta guneen arabera, egur tratatua erabil daiteke edo arrokan bertan tailatu daitezke. Eskailera mailaren tartea ez da 20 cm-koa baino handiagoa izango eta, lehenengo kasuan, zutoinen hormigoiztatzea, gutxienez, 50 cm-ko sakonerarekin egingo da.

En el caso de las escaleras y dependiendo de las zonas, podrán ser de madera tratada o talladas en la roca. El desnivel entre peldaños no será superior a 20 cm y los postes se hormigonarán un mínimo de 50 cm, en el primero de los casos.

Haizeak botatako zuhaitzak kentzea

Enpresa adjudikaziodunak ez du zuhaitzik moztuko Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarien berariazko baimena izan gabe.
Baimena lortzean, bidea oztopatzen edo ixten duten zuhaitzak gehienez ere 2 m-ko zatitan moztuko dira, adarrak barne. Hondakinak alboetan pilatuko dira, ibilbidearen errodadura geruza baino beherako.

Eliminación de árboles abatidos por el viento

La empresa adjudicataria no cortará ningún árbol sin la autorización expresa del personal técnico de Diputación Foral de Gipuzkoa.
Una vez obtenido el permiso, los árboles que obstaculizan o cierran el sendero deberán de ser troceados en piezas de no más de 2 m, incluidas las ramas. Los restos se apilarán a un nivel inferior a la capa de rodadura del sendero.

Mahaiak, bankuak, erretegiak eta iturriak jartzea

Ibilbide homologatuen ertzean dauden Gipuzkoako Foru Aldundiko atseden guneetan, enpresa adjudikaziodunak behar diren altzariak garraiatu eta jarriko ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarien irizpideei jarraituz.

Colocación de mesas, bancos, asadores y fuentes

En las Áreas Recreativas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, situadas al borde de los Senderos Homologados, la empresa adjudicataria procederá al transporte y la colocación del mobiliario necesario siguiendo las directrices del personal técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Abeltzaintzako itxiturak eta hesiak egitea

Abeltzaintzako itxiturak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak hornitutako akazia edo gaztainondo hesolak, abereentzako sarea eta alanbre arantzaduna erabiliko dira. Hesolak, gutxienez, 50 cm sartuko dira, 1,75 metroko tartea utziz. Sarea eta alanbrea behar bezala tenkatuko dira.
Tratamendua duten egurrezko hesiak bertikalean berdinduta jarri beharko dira eta zutoinak 50 cm hormigoiztatuko dira.

Realización de cierres ganaderos y vallados

Los cierres ganaderos se realizarán con estaca de acacia o castaño, malla ganadera y alambre de espino suministrados por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Las estacas se clavarán un mínimo de 50 cm con una distancia entre estacas de 1,75 m. La malla y alambre se tensarán debidamente.
Los vallados de madera tratada deberán de colocarse nivelados verticalmente y con los postes hormigonados 50 cm.

Hondatutako edo zaharkitutako altzariak kentzea

Atal honetan elementu hauek sartzen dira: zutoinak, panelak, mahaiak, seinaleak, itxiturak, hesiak, erretegiak eta menditik atera behar den materiala (bandalismoa, hondatzea edo zaharkitzea dela eta) eta Arizmendi Mintegira eraman behar dena, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarien irizpideei jarraituz.

Retirada de mobiliario deteriorado u obsoleto

Se incluyen en este apartado postes, paneles, mesas, bancos, señales, cierres, vallados, asadores y demás mobiliario que por actos de vandalismo, deterioro u obsolescencia es necesario retirar del monte y llevarlo al Vivero Arizmendi siguiendo las directrices del personal técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Egindako zerbitzuen geoerreferentziazioa

Enpresa adjudikaziodunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek aginduta, egin

Georreferenciación de los servicios prestados

La empresa adjudicataria debe poseer los medios necesarios para geolocalizar los

beharreko zerbitzuak geolokalizatzeko behar diren baliabideak izango ditu, Informazio Geografikorako Sistema Digitalak erabiliz.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak behar diren baliabideak izango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariei egin dituen zerbitzuen informazio geoerreferentziatua bidaltzeko. Gutxienez, egindako zerbitzuen bi argazki geoerreferentziatuta bidaliko dira. Bertan, argi eta garbi azalduko da egoera, lanak egin aurretik eta egin ondoren. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariei txosten bat bidaliko zaie astero, gutxienez, eta bertan, epe horretan egunez egun egin diren lanak zehaztuko dira.

Geoerreferentziatzeko gaitasuna egiaztatzea

Aurreko atalean azaldutako ezagutzak eraginkortasunerako duen garrantzia dela eta, langileburuak ezagutza horiek egiaztatzea eskatuko da. Ezagutza horiek egiaztatzeko, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak lanak baloratzeko bisita egin izanaren egiaztagiria emango du. Bisita hori, Memoriaren 8-2-4 atalean eta Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 14. klausula korrelatiboan adierazitako sistemaren bidez egingo da.

Mendien Erabilera Publikoaren arloko bestelako lanak

Ez da ohikoa, baina, batzuetan, ondoren zehazten diren lanak egin behar dira:
- Baimenik gabeko monolitoak kentzea.
- Iturburuetan, ura biltzeko kutxatilak egitea.
- Harrizko hormatxoak egokitzea.
- Zuhaitzen motzondoak kentzea.
- Eta abar.

6.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Laneko segurtasun eta higieneari buruz dauden xedapen guztiak beteko ditu enpresa

servicios a prestar que indique el personal técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa mediante el uso de Sistemas de Información Geográfica digital.

Del mismo modo, la empresa adjudicataria debe poseer los medios necesarios para enviar al personal técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa información georreferenciada de todos y cada uno de los servicios prestados. Esta información consistirá, como mínimo, en dos fotografías georreferenciadas de los servicios prestados dónde se aprecie, claramente, el antes y el después de las mismas. Así mismo, se deberá enviar al personal técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa, como mínimo, un informe semanal, dónde se detallen, por días, los trabajos realizados durante el periodo de dicho informe.

Acreditación de la capacidad de Georreferenciación

Debido a la importancia que para la operatividad tiene el conocimiento expuesto en el apartado anterior se exigirá demostrar dichos conocimientos por parte del capataz. La acreditación de dichos conocimientos tendrá lugar a través de la expedición por parte del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats del justificante de haber realizado visita de valoración de los trabajos, toda vez que dicha visita se efectuará mediante el sistema que se indica en el apartado 8-2-4 de la Memoria y correlativa cláusula 14 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Otros trabajos en el ámbito del Uso Público de los Montes

Aunque no suele ser muy habitual hay ocasiones en los que hay que realizar los siguientes trabajos:
- Retirada de monolitos no autorizados.
- Realizar arquetas de captación de agua en manantiales.
- Acondicionamiento de muretes de piedra.
- Destoconado de árboles.
- Etc.

6.- SEGURIDAD Y SALUD

La empresa adjudicataria cumplirá con todas y cada una de las disposiciones vigentes

adjudikaziodunak, hau da, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, eta 1.215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa; beraz, lan istripuei buruzko gai guztiak enpresa adjudikaziodunaren eta ez beste inoren erantzukizunekoak izango dira. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango enpresak ez baditu betebehar horiek betetzen.

sobre seguridad e higiene en el trabajo. Ley 31/1995 de 8 de noviembre, Real Decreto 773/1997 de 30 de mayo y Real Decreto 1.215/1997 de 18 de julio, siendo de su exclusiva responsabilidad todo lo referente a accidentes de trabajo. El incumplimiento de estas obligaciones no implicará responsabilidad alguna para la administración contratante.

Enpresa adjudikazioduneko langileren batek lan istripuren bat jasaten badu, bere osasunari kalteak eraginez, enpresak ikerketa txostenaren kopia bat emango dio dagokion departamentuari.

En caso que alguno de los operarios de la empresa adjudicataria sufra un accidente laboral que cause daños a su salud, ésta deberá suministrar una copia del Informe de Investigación al departamento correspondiente.

7.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Egin behar diren lanen ezaugarriak ikusita, eskaintzak antzeko 2 sorta izango ditu. Enpresak, ezaugarri teknikoen agiriaren baldintza guztiak betetzeko duen ahalmenaren arabera, bakarrik edo taldeka lehiatu ahal izango du. Eskaintzen diren sortak honako hauek dira:

7.- CARACTERISTICAS DEL CONTRATO

Debido a las características de los trabajos a realizar, la oferta constará de 2 lotes de similares características por los que se podrá concursar de forma separada o conjunta dependiendo de la capacidad de las empresas interesadas para cumplir todas las especificaciones del presente pliego de condiciones técnicas. Estos son los lotes que se ofertan:

1. sorta: Gipuzkoako Foru Aldundia sustatzaile den Naturgune Babestuetako Mendi Ibilbide Laburren eta Herri Bideen Sarea.

Lote 1: Trabajos en la Red de Pequeños Recorridos y Senderos Locales de Montaña en los Espacios Naturales Protegidos de las que es promotor la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. sorta: Gipuzkoako Foru Aldundia sustatzaile den Mendi Ibilbide Luzeen Sareko lanak.

Lote 2: Trabajos en la Red de Grandes Recorridos de la que es promotor la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Donostia, sinadura elektronikoaren egunean

Mikel Zabala – ET Mendiak
Iñaki Azanza – Azpiegituretako Atalburua

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA IBILBIDE LABURRETAN ETA , GRDSS2016 MENDIKO

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ZABALA LASA, Mikel

ET, MENDIAK ETA HABITATAK KUDEATZEKO
TM MONTES Y GESTIÓN HÁBITATS

Data / Fecha: 2025/05/05 13:45:38

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

AZANZA SALVARREDI, Iñaki

ET, INFORMATIKOA
TM INFORMÁTICO/A

Data / Fecha: 2025/05/05 14:56:26